

“Hokoke, hokoke”



JUAN MARI ARREGI

Hokoke, hokoke. Damun fi oroke. Lan hansaha lau adamuni. Esan nahi du, “nire eskubideak zainetan dudan odola dira. Ez naiz haietaz ahaztuko hiltzen banaute ere”. Arabiarrezko oihu hori ari gara entzuten, ez Almeriako El Ejidoko negutegietan, baizik eta Euskal Herriaren bihotzean, Nafarroan. Ez dirudi arazoa konpontzeko bidean dagoenik eta laugarren astez greban daude Azkoiengo Huerta de Peralta langileak –denak etorkin marokotarrak, enpresako arduradunak salbu-. 150 pertsonako lantaldea da eta negutegietan letxugak eta barazkiak jasotzen dituzte, bertakoek jadanik ez baitute halako lanik egin nahi. Kaleratuak izan ziren enpresa batzordeko lau kide berriz hartzeko eskatzen dute eta hitzarmena ez betetzeagatik enpresak zor dien 440.000 euroak itzultzeko.

Garrantzitsua da borroka hau, etorkinak baitira beren eskubideak defendatzen dituztenak eta negutegien negozioan sasi-esklabotzan bizi diren beste milaka etorkinentzat eredu izan baitaiteke. Greba honen bilakaera urrats handia izan da –grebalarien manifestazioak eta haiekiko elkartasun adierazpenak–, langile errebindikatzailenen kontra lurjabe handiek egindako abusuak geldiarazteko eta injustizia eta prekarietatea beste negutegi batzuetara ez zabaltzeko. Etorkinen eta bertakoen artean sortzen ari den elkartasuna ere nabarmentzeko modukoa da: “Bertako edo kanpoko, denok langile klaseko” eta antzeko oihuak entzun ditugu, eta borrokari eusteko erresistentzia kutxa antolatu dute.

Nafarroako Gobernuak ez luke foru poliziaren errepresioarekin erantzun behar, alderantziz, bitartekari lanak egin beharko lituzke, entsaladarako zorroak produzitzen dituen Huerta de Peralta enpresak laguntza publiko handiak jasotzen baititu. *Hokoke, hokoke!* ●



Errealitatea da paseo bat busean

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA @amaialekunberri

Gasteizko autobus batean, astegun buruzurian eta egun argiz, eraso arrazista bat. Tolestu gabeko patinete baten aitzakian, autobus gidaria jatorri atzerritarreko emakume bati oldartu zitzaion. Txoferrak ez ezik, hainbat bidaiarik ere hitzez eraso zioten: “Hona zatozte eta dena kentzen diguzue”, “emakumea zarelako, bestela egurtuko zintuzkedan”, “militarra naiz, hogeit urte daramatzat zu bezalako jendea akabatzen”. Azken esaldiak, emakumearen alaba ukitu bitartean esana, emakumea negarrez aterarazi zuen autobusetik, ez heriotza mehatxurik jaso gabe.

Ez da denboran atzera gehiegi egin behar antzerako gertakari gehiagorekin topo egiteko: hilabete hasieran, Mostolesen (Espainia), Ekuatore Gineako emakume bat eta semea autobusetik kanporatu zituzten “autobusa beteta zioalako”, poliziaren esku-hartze eta guzti. Bidaia txartel berberak lehen eta bigarren mailako herritarrak nola ezberdintzen dituen, atera kontuak. Urrian, Bartzelonatik (Katalunia) abiatzekoa zen Ryanair-en hegazkin batean emakume bat tokiz aldarazi zuen konpainiak, ondoko eserlekuan bidaiatzea zegokion gizonak uko egin baitzion haren alboan esertzeari, “beltza zelako”.

Dirudienez gaur, atzo bezala, autobusek errealitatearen mikrokosmosak izaten jarraitzen dute. 1955ean, arraza-segregazioak autobusetan zurientzako eta beltzentzako espazioak marra batez ezberdintzen zituen garaiko Alabaman, gizon zuri bati bere eserlekua lagatzeari uko egin zion Rosa Parks-ek. Ekintza hark giza-eskubideen aldeko borrokaren ikono bilakatu zuen. Alabaina, esan daiteke uste duguna baino gutxiago aurreratu dugula. Are gehiago: ez ote gabiltza atzerapausoak ematen.

Indartuz doan faxismoari eskutik helduta, migrazio politika gogorak eta hauek sostengatzen dituen diskurtso xenofoboa ere gorantz ari dira. Mikel Garciak orain bi asteko analisisan azpimarratu zuen eran, harresi mentalak sortzen ari gara, fisiko bilakatzen direnak. Han eta hemen, baditugu aipatu Alabamako autobusak erakusten zuen marraren tankerakoak: izan mugetako harresi mardulak edo eguneroko jarrera diskriminatzaileak. Baina hain sendo ageri zaizkigun harresiek badute bista-bistako ahulgunerik: “Horma bat horma bat besterik ez da, apurtu daiteke”, zioen Pantera Beltzetako AssataShakur-ek. Konplizetik baino kamikazetik gehiago duten bidaiariak gehiengoaren diren egunean, akaso, autobusak horma jo eta errealitatea irauliko du. ●